



Ezkerrean sasia eta enborrak kentzen eta eskubian eraikin barruan pilatutako lurra kendu eta planoak egiteko datuak hartzen.

Garbitu eta planoak ateratzen ari dira Etxolaberriko minen eraikinetan

■ Auzolantegietako jendea ari da lan horretan eta Etxolaberriko minetan ateratako materiala bildu eta moldatzeko egindako eraikinen plano arkeologikoak ari dira ateratzen ■ Denborarekin asko zikindu da minak zireneko ingurua eta sasia kentzen ari dira planoak atera ahal izateko.

ETXOLABERRIKO minen inguruko eraikinak garbitu eta plano arkeologikoak ateratzen ari da auzolantegietara Hernanira etorritako gazte koadrila bat. Guztira 20 gazte eta 3 monitorea ari dira lanean. Auzolantegian herrialde askotako jendea dago: Polonia, Frantzia, Italia, Japon, Alemania eta hemen bertakoak besteak beste. Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen auzolantegien

bidez etorri dira Hernanira.

Etxolaberriko minen garbier egindako eraikinak garbitu eta eraikin hauen planoak ateratzen dituzte. Eraikin hauek minetatik ateratako materiala gorde eta manipulatzeko erabiltzen zituzten dirudienek. Goizetik egiten dute hemen lan eta arratsaldean bestelako aktibitateak dauzkate preparatuak: taldekako tribiala, kamixeta tailerrak, irteerak Biz-

kaira eta Nafarroara eta abar. Lo eta jan lehengo Udal jangelako eraikinetan egiten dute, Kiroldegi gainekaldeko lokaletan.

Sasiak janda

Proiektua aurkeztu duena Felix Ugarte espeleologia taldea izan da. Meategi nagusien planoak aterak ditu espeleologia taldeak eta asmoa da Etxolaberriko minak zireneko informazioa atera eta herritarrei paraje hura ezagutzeko bidea jartzea. Orain 15 urte iritsi ziren Felix Ugarte taldeko lagun batzuk minetako eraikinak dauden tokira eta argazkiak atera zituzten. Azken 15 urtean lekua izugarri zikindu da, larrak eta arbolak atera baitira eta zenbait paretak eta harri erori. Dirudienek lehen ehiztariak eta pasatzen ziren inguru honetatik, baina, orain

ez da inor pasatzen. Horrez gain, inguruko basoren bat bota dute eta argi gehiago sartzen da orain lehen baino eta bestelako bejetazioak indarra hartu du.

Informazio gutxi

Etxolaberriko minen inguruan ez dago informazio asko. Hemeretzigarren mendean eta hogeigarren mende hasieran egon ziren martxan meategiak, baina, urte zehatzik ez dago. Badirudi burnia ateratzen zutela eta agian zilarra ere bai. Orain arte bilatutako minak 15 dira, gehienak txikiak, eta gehiago egotea posible da. Erromatar garaiko meategi baten aztarnak ere badaude baina beste guztiak 19garren mendeko meategiak dira. Seguru asko erromatar garaiko meategiak aprobetxatuta segi zuten lanean 19garren mendean, eta horregatik desagertu dira erromatar garaiko aztarnak. Beherago erromatar garaiko zubi bat dago eta 300 urtetik gora dituen burdin ola bat. Auzolantegien aurreneko txandan zubia eta burdinola garbitzen aritu ziren. □



NOLA IRITSI

Ugaldetxotik Olazarreko bidean aurrera joan Urmendi baserriaino. Urmenditik aurrera pista bat ateratzen da eta segi pistari, Etxolaberriko zubia markatzen duen kartelera iritsi arte. Zubia dijoan laisterbidea hartu beharrean (bide honetatik zubi erromatarra eta burdin ola iristen da), pistan 20ren bat metro aurrerago beste laisterbide bat dago eskubira (basoan behera) eta hori hartu. Errekara jaitsi eta segi errekarari lehenago minetako eraikinetara iritsi arte (hasieran errekar bi adar ditu eta ezkerrekoa hartu).



Nahiko lan eginda hamaketakoa egiten, auzolantegietako koadrila.

www.kronika.net
HERNANIK
kronika
Interneten helbide berria

PROKOLOR ZENTRUA
PL
Pinturas
Landaribar, s.l.
► Pintatzeko ekipoak
► Industri eta dekoraziorako pinturak
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS" ETAN SALGAI
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

IPARRA
SUKALDEAK

Zikuñaga, 61 - lokala zbk. 7
Ibarluze poligonoa
Tel.: 943 55 67 60
Fax: 943 33 19 75
20120 Hernani

GARAYAR AUTOBUSAK
Autobus serbitzua
Linea erregularrak
Zerbitzu diskrezionalak
(ESKOLARRAK)
Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain
Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)

ERREMONTA - CASINO KURSAAL TXAPELKETA

Bitoriak ondo menderatu zuen Aizpuru, ezustekoa eta lekzioa emanda

■ Bitoria final laurdenetara pasa da eta Zeberio Ilaren kontra jokatu beharko du
■ Bestalde, Promesen Bi-bitako Txapelketa gaur hasiko da, Galarretan.

Aizpuruk 22
Bitoriak 30


XABIER Bitoria andoaindarrak Pello Aizpuru kanporatu zuen larunbatean Buruz Buruko Txapelketatik. Bitoriak joku erakustaldi aparta eman zuen eta aukera gutxi utzi zizkion Aizpururi. 22-30 irabazi zion Bitoriak Aizpururi eta final laurdenetara pasa da Casino Kursaal Txapelketan. Final laurdenetan Zeberio II izango du zai, joan den urtean finala Ezkurraren kontra galdu zuen elduaindarrak.

Bitoria gero eta hobeto

Xabier Bitoria andoaindarrak iaz eman zuen lehenengo sorpresa, Buruz Buruko hiru partidu jarraian irabazita. Eizagirre izan zen iaz Bitoriaren bolada ona moztu zuena, baina, 31 urteko aurrelariak alboan utzi zituen A.Lekunberri, Txikuri eta Altuna II.

Aurten ere badirudi martxa berean hasi duela txapelketa Bitoriak, eta adibide nabarmenena larunbatean jokatuako partidua da. Bitoriak 5 tanto egin zituen sakez; 6 bi paretaz; eta 4 errebotean. Aizpuruk ondo eutsi zion partidu erdialdera arte, baina, hortik aurrera zer egin gutxi izan zuen.

Txapelketako bi partidu ostegunean eta larunbatean
Final laurden bat Bitoriak eta Zeberio IIak jokatu dute eta beste bi final laurdenak aste honetan erabakiko dira. Ostegunean Eizagirrek eta Altuna IIak jokatu dute, eta larunbatean, Altuna I eta Etxabek neurtuko dituzte indarrak.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Bitoria larunbatean, Aizpururen kontrako partiduan.

Promesen txapelketa

Bestalde, gaur, Promesen Bi-bitako Txapelketa hasiko da. Lehendabiziko partidua Matxin IVak eta Aizpurua IIak jokatu dute Iturralde eta Ionen kontra. Bigarrena, La-

rrera eta Urrutiak dute Zalakin eta Olazarren kontra. Horrez gain, eta jaialdi beraren barruan, bi-bitako beste bi partidu ere izango dira. Jaialdia 16:00etan hasiko da, gaur, Galarreta pelotalekuan. □

GALARRETA KO GAURKO PARTIDUAK 16:00etan hasita

- 1-Casino Kursaal Txapelketa. Promesak**
Matxin IV - Aizpurua II / Iturralde - Ion
- 2-Bigarren partidua**
Bitoria - Eizagirre / Altuna II - Urko
- 3-Hirugarren partidua**
Sarasua - Etxeberria II / Matxin III - Urretabizkaia II
- 4-Casino Kursaal Txapelketa. Promesak**
Larrea - Urrutia / Zalakin - Olazar

HERRI BARRUKO AUTOBUSA


Herri barruko autobusik ez da izango gaurtik hilaren 24a bitarte

HERRI barruko autobus zerbitzua ez da izango gaur hasi eta hilaren 24a bitarte. Abuztuan jende dezente gutxiago ibiltzen da autobus horretan, eta horregatik bolada honetan hartzen du txoferrak atsedena. Herri barruko autobusak Urbieta kalean hasi, Antziola, Sagastialde, Etxeberri, Urbieta eta Zikuñagako buelta egiten du, eta jende gehiena goizetan eta euri egunetan izaten da. □



Hernaniko herri barruko autobusa.

IGERIKETA - ESPAINIAKO TXAPELKETA



Olatz Altuna eta Oihane Sanzek denboraldi oso ona daramakite.

Olatz Altuna eta Oihane Sanz hernaniarrek Espainiako Txapelketa jokatu dute

■ Palma de Mallorcan dute txapelketa, 6tik 10era.

OLATZ Altuna eta Oihane Sanz hernaniarrek Espainiako Txapelketa jokatu dute asteazkenetik igandera, Palma de Mallorcan. Oihanek Euskadiko txapelketan lortu zuen txartela Espainiako jokatzeko eta Ola-

tzek berriz, Santurtzin eginda denbora hartze batean. Denboraldia bukatzeko gelditzen zaien azkeneko txapelketa da Espainiako, eta aurtengo urte bikaina gehiago borobiltzeko aukera izango dute. □

IGERIKETA - GETARIA-ZARAUTZ TRABESIA



Hernaniko Igeriketa Elkartekoak, trabesia egunean.

Hernaniar asko Getaria - Zarautz trabesian

HERNANIKO jende asko izan zen Getaria-Zarautz trabesian, joan den uztailaren 25ean. Igeriketa Elkartekoak 12 izan ziren eta elkartekoak ez diren gehiagok ere egin zuen froga. Elkartekoen izenak honako hauek dira: Mikel Etxe-

berria (79garren), Joxemi Sanchez, Julen Gil, Jon Imanol Fernandez, Harri Iturriotz, Jurgi Blanco, Mañel Aizpurua (36garren), Gari Etxebeste, Jon Ormazabal, Ioritz Aldabe, Peru Alfaro (32garren) eta Jon Ander Izuzkiza. □

IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: 943 55 63 68

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak:
943 550093
- ▶Udaltzaingoa:
943 333288
- ▶DYA:
943 464622
- ▶Anbulatorioa:
943 006666
- ▶Jokalarri anonimoak:
943 331103

⊕ FARMAZIAK

ASTELEHENA

▶Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087

▶Gauetz: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087

ASTEARTEA

▶Egunez: Bilbao-Sagas
Urbieta 7
☎ 943 552941

▶Gauetz: Bilbao-Sagas
Urbieta 7
☎ 943 552941